

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2012-13

Lehen Hezkuntzako 4. maila

Azken txostena

2012ko iraila

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	6
2. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa	6
2. 2 Gaitasun mailak: esanahia.....	8
2. 3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak	9
2. 4 Emaidza orokorrak.	13
2.5 Puntuazioen banaketa	16
2.6 Ekoizpen idatzia bereiztea	17
3. Hizkuntza gaitasuna euskaraz	22
3.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen kopurua.....	22
3.2 Gaitasun mailak: esanahia.....	23
3.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak	25
3.4. Emaidza orokorrak	29
3.5 Puntuazioen banaketa	32
3.6 Ekoizpen idatzia bereiztea	33
4. Matematikako gaitasuna	38
4.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa.....	38
4.2 Gaitasun mailak: esanahia.....	39
4.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak	41
4.4. Emaidza orokorrak	45
4.5 Puntuazioen banaketa	48
5. Ingeles gaitasuna	49
5.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa.....	49
5.2 Gaitasun mailak: esanahia.....	50
5.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak	52
5.4. Emaidza orokorrak	55
5.5 Puntuazioen banaketa	58
6- ISEK (Informazio sozioekonomikoa eta kulturala)	
6.1 ISEKa.....	59
6.2 Erregresio-zuzenak	61
6.3 ISEKaren banaketa.....	62

1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 21. artikulua ezartzen du, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa bukatutakoan, ikasleek eskuraturiko oinarrizko gaitasunen gaineko ebaluazio diagnostikoa egingen dutela ikastetxe guztiek. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak izanen ditu:

- Zentsala izanen da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek egin eharrekoa.
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa.
- Informatiboa, ikasleendako eta familiendako.
- Prestakuntzako, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2011-2012 ikasturteko ebaluazio diagnostiko zentsalean landu dira irakaskuntzako hizkuntzetako hizkuntza gaitasunak, matematika gaitasuna eta ingeles gaitasuna; probek erreferentzia gisa 2008-2009 ikasturtean argitaratu zen ebaluazioaren esparru teorikoa dute.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuz. Beraz, kanpokoak izan dira, ikastetxeetarako eta ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Ekainaren hasieran ikastetxeek eskura izan zituzten ikasleen txostenak, ikasle bakoitzaren txostena egin ahal izateko. Ikasturtearen bukaeran familiak jakinaren gainean jarri ziren.

Data horietan, Educa aplikazio informatikoaren bidez baita ere, ikastetxeek eskura izan zuten txosten orokor bat, ondoko estadistikoekin: Batez besteko puntuazioa, desbiderapen tipikoa, ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean, erantzun zuzenen ehunekoa item bakoitzerako, batez besteko puntuazioa ikasgelaz ikasgela, errendimendua-ISEK erregresioaren gaineko argibideak (aldagai sozioekonomikoa). Argibide horiek guztiak gaitasun bakoitzaren arabera ematen dira, taula eta grafikoen bidez.

Eskuetan duzun txosten honek aurretik emandako argibideak osatu nahi ditu, ikuspegi orokor batetik, ikasle guztien gainean eta frogen ezaugarrien gainean. Txosten honetan garrantzizkoak dira ondoko aspektuak: gaitasun mailen esanahia, itemak edo galderak gaitasun maila zehatz batekin lotzea, eta item bakoitzarekin ebaluatzen den prozesua. Ikasleen puntuazioak histogramatan aurkezten dira, eta banaketa normalarekin alderatzen da.

Eta, txosten honen azken atalean, ikastetxeko ikasleen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren arteko korrelazioa aztertzen da. Gaitasun bakoitzerako

erregresio-zuzena ematen da, eta horrek aldagai sozioekonomiko eta kulturalak batez besteko errendimenduan duen eragina baloratzen laguntzen du.

Ebaluazioaren izaera zentsala

2011-2012 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 6.754 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzentzen zaie ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da gerta daitekeela ikasle batzuek ezintasun tekniko bat izatea probak beharrezko baldintzetan egiteko. Hori dela kausa, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako (urtebete baino gutxiago) probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak; Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) zentsaturiko urritasun psikiko edo intelektuala duten ikasleak, edo probak egitea galaraziko duen mugimendu edo zentzumen urritasuna duten ikasleak.

Egoera horiek kasuz kasu aztertu ondoren 197 ikasle salbuestsi ziren proba egitetik eta, azkenean, 6.557 ikaslek egin zituzten probak.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak:

Matrikulazio eta parte-hartze datuak

a) Orokorrak

	Lehen Hezkuntza 4. maila	
	Kop	%
Matrikula, osotara	6.754	100
Salbuestsitako ikasleak	197	2,9
Azken populazioa	6.557	97,1

b) Gaitasunaren arabera

	Proba egin dute Kop - (%)	Ez dute proba egin Kop - (%)
Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	6.506 - (99,2%)	51 - (0,8%)
Hizkuntza gaitasuna euskaraz	1.782 - (99,6%)	8 - (0,4%)
Matematika gaitasuna	6.491 - (99%)	66 - (1 %)
Ingeles gaitasuna	6.490* - (99,1%)	56 - (0,9%)

* 11 ikasle dira frantsesa ikasten ari direnak, ingelesaren tokian

Salbuetsitako 197 ikasleetatik, batzuek probak egin zituzten, eta banakako txostena eskuratu zuten. Hori egiten ahal izan zen tutoreek pentsatu zutelako eskuratuko zen informazioak lagun zezakeela beren lan profesionalean, ikuspegi osagarri eta baliagarri bat izateko.

Txosten honetan azaltzen diren datu estatistiko orokorretan ez dira kontuan hartu salbuetsitako ikasleak, ezta epez kanpo aurkeztu direnak ere.

2. Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz

2.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak bi zati izan ditu: irakurketa eta idazketa.

Irakurketak bi testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurritakoa ulertzeko ondoko galderak atera dira: “*Doña Vinagre*” testutik 12 item prestatu ziren eta “*Vincent Van Gogh*” izeneko bigarren testutik, 13 item.

Osotara, 25 item izan ziren. Horietatik 20ek puntu bateko balioa izan zuten eta 5k, 2 puntukoak. Kasu hauetan, puntu bateko puntuazio partzialak onartu dira.

25 itemei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

Itemak zailtasun desberdinekoak izan dira: oso item errazak baziren (ikasleen %86,4k zuzen erantzundakoak) eta bata oso zailak ere (ikasleen %29,7k zuzen erantzundakoak).

Idazlana egiteko ikasleak aukera librea zuen, pertsonai aparteko baten inguruan.

Testu idatziari dagokionez, idazketaren kalitatearen edo egokitasunaren gaineko zinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzenketa gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna; denek munta bera izan dute puntuazio osoan.

Txosten honetako 2.6 puntuan idazketaren emaitzak ageri dira, modu bereizian emanak. Hizkuntza gaitasuneko puntuazio osoa lortu da irakurketako eta idazketako puntuazio osoak baturik (puntuazio horiek, hurrenez hurren, 0,707-rekin eta 0,293-rekin haztatu dira eta, gutxi gorabehera, puntuazio orokorraren 2/3ak irakurketari dagozkio eta 1/3a idazketari).

Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: tipologia (irekia edo itxia), emandako gehieneko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluatoriko prozesua.

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehieneko puntuazioa	Zailtasun-indizea: ongi erantzundakoen %a	Ebaluatutako prozesua
1	A	2	82,6	Ulermen orokorra
2	C	1	43,6	Ulermen orokorra
3	C	1	62,0	Ulermen orokorra

4	C	1	44,8	Interpretatzea
5	C	1	57,4	Interpretatzea
6	C	2	64,4	Informazioa bilatzea
7	A	1	53,0	Interpretatzea
8	A	1	86,4	Edukiaren gaineko hausnarketa
9	C	1	84,9	Edukiaren gaineko hausnarketa
10	C	1	55,4	Ulermen orokorra
11	A	2	51,2	Informazioa bilatzea
12	A	2	81,5	Interpretatzea
13	C	1	79,3	Interpretatzea
14	C	1	73,0	Informazioa bilatzea
15	C	1	59,4	Informazioa bilatzea
16	C	1	74,7	Interpretatzea
17	A	2	59,6	Edukiaren gaineko hausnarketa
18	C	1	83,9	Informazioa bilatzea
19	C	1	29,7	Informazioa bilatzea
20	C	1	67,0	Edukiaren gaineko hausnarketa /Interpretazioa
21	C	1	80,1	Edukiaren gaineko hausnarketa
22	C	1	71,6	Formaren gaineko hausnarketa
23	C	1	72,2	Informazioa bilatzea
24	C	1	94,0	Interpretatzea / Ulermen orokorra
25	C	1	64,2	Edukiaren gaineko hausnarketa
26	A	4	65,3	Aurkezpena eta ortografia
27	A	4	64,3	Coherencia de la historia
28	A	4	62,8	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna

26, 27. eta 28. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Hizkuntza gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetan dauden ikasleak gai dira narrazio edo azalpen testu bateko informazio literala ulertzeko. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, ulermen orokorra egitea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko.</p> <p><i>Oro har, ikasle horien ekoizpen idatzien aurkezpena ez da ona, ez dute zinez barne koherentziarik eta komunztadura akatsak egiten dituzte.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte 1. mailako galderak; hots, narrazio eta azalpen testuetan informazio erabat literala ulertzea eskatzen dutenak. Horretaz gainera, informazioa bilatzeko galderak ere erantzuten dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoeraren ulermen maila handiagoa eskatzen dutenean. Nolanahi ere, ikasle horiek zailtasunak dituzte ulermen orokorrari dagokionez, eta narrazio edo azalpen testu idatzi bat interpretatzeari eta baloratzeari dagokionez.</p> <p><i>Haien ekoizpen idatzietan bost ortografia akats baino gehiago daude. Testuaren barnekohesioan akatsak izan ohi dir.: Perpausen egitura oso oinarrizkoa da.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa berreskuratzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera, testua globalki ulertzen dute. Maila onargarria dute, edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez. Gai dira testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko.</p> <p><i>Haien ekoizpen idatzietan bost ortografia akats baino gutxiago daude. Perpausak batzuk besteekin ongi kateaturik daude. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.</i></p>	<p>3. mailako atazak zuzen egiten dituzte eta, horretaz gainera, ataza konplexuagoak egiteko ere badira gai.</p> <p><i>Haien ekoizpen idatzietan oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen dituzte. Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira. Maila hau aurrekotik bereizten da barnekohesioan baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</i></p>

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio globala erdiestea, hurrengo taulan adierazten den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz Puntuazio-tarteak
1. maila	0 -17
2. maila	18 - 24
3. maila	25 -36
3+ maila	37 - 42

2.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez:

- 9. itemak testuaren gaineko hausnarketa eskatzen du eta oso erraza izan da ikasleen %84,9rentzat
- 14. itemak informazioa aurkitzea eskatzen zuen, eta ez da aurrekoa bezain erraza izan
- 20. itemak testuaren gaineko interpretazioa egitea eskatzen zuen, eta zailtasun maila ertainekoa izan da.
- 19. galderak informazioa aurkitzea eskatzen du, eta orokorrean zaila izan da

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztien arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin.

Diskriminazio-indizeak positiboa izan behar du eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

- Erantzun irekiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailai (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Item zk.	Mailaketa	Diskriminazioindizea
1	1 .maila: erantzun partziala 2. maila: erantzun osoa	0,459
2	3+ maila	0,101
3	3. maila	0,288
4	3+ maila	0,247
5	3. maila	0,378
6	2 .maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa	0,435
7	3. maila	0,389
8	1.maila	0,400
9	1.maila	0,327
10	3. maila	0,372
11	2. maila: erantzun partziala 3+ maila: erantzun osoa	0,482
12	1 .maila: erantzun partziala 2. maila: erantzun osoa	0,403
13	2.maila	0,425
14	2.maila	0,356
15	3. maila	0,300
16	2.maila	0,289
17	1 .maila: erantzun partziala 3+ maila: erantzun osoa	0,420
18	1.maila	0,341

19	3+ maila	0,272
20	3. maila	0,443
21	1.maila	0,276
22	2.maila	0,302
23	2.maila	0,304
24	1.maila	0,278
25	3. maila	0,363
26	1. maila: puntu bateko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna	0,459
27	1. maila: puntu bateko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna	0,673
28	1. maila: puntu bateko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna	0,688

26, 27. eta 28. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

24. itema ¿Para qué crees que lo escribó?

- A. Para entretenernos un rato.
- B. Para llenar un libro de texto.
- C. Para que conozcamos un poco a Van Gogh.
- D. Como guión para hacer un cómic.

Erantzuna	C
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea / Ulermen globala
Gaitasun maila	1. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 1. mailan	74
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	94
Diskriminazio- indizea	0,278

13. ítema ¿Quién es el narrador de este relato sobre Van Gogh?

- A. Un pintor amigo suyo.
- B. Un niño que lo conoció.
- C. El cartero del pueblo.
- D. Un primo de Van Gogh.

Erantzuna	B
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	2. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 2. mailan	65,7
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	79,3
Diskriminazio- indizea	0,425

5. ítema ¿Es feliz Doña Vinagre?

- A. No, porque vive en un tonel.
- B. No, siempre está amargada.
- C. Sí, será feliz cuando sea emperatriz.
- D. Sí, es feliz cuando le dan un palacio.

Erantzuna	B
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	3. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3. mailan	64,1
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	57,4
Diskriminazio- indizea	0,378

19. ítema. La gente del pueblo temía a Van Gogh porque ...

- A. Se pasaba la noche pintando en el campo.
- B. Cantaba y bebía con el padre de Camille.
- C. A veces reaccionaba violentamente.
- D. Parecía un loco con el pelo rojo y sin oreja.

Erantzuna	C
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	3+ maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3+ mailan	63,8
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	29,7
Diskriminazio- indizea	0,272

2.4. Eraitza orokorrak**Estatistikoen taula (Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz)**

Kopuru osoa	6.557
Gaitasun proben kopurua	6.506
Neska kopurua	3.238
Mutil kopurua	3.268
Gutxieneko puntuazioa	2
Gehienezko puntuazioa	42
Batez besteko puntuazioa	27,85
Desbideratze tipikoa	7,56
Nesken batez bestekoa	28,65
Mutilen batez bestekoa	27,05
1. maila (%)	10,87
2. maila (%)	19,83
3. maila (%)	57,16
3+ maila (%)	12,14


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 42 puntu dituztenak, eta 2 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa 7,56koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %27,1; handikoa da eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 51

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoak jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	10,87
2. maila	19,83
3. maila	57,16
3+ maila	12,14

Irudikatze grafikoa


Alderdi azpimarragarriak

- 10 ikasletatik ia 7k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko.
- Ikasleen %10,87ek neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako

Banaketa, sexuaren arabera


Neskek mutilek baino 0,43 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, ($<1/4$ DT)

	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	28,65
Mutilen batez bestekoa	27,05

Irudikatze grafikoa

2.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da (kurba den banaketa normalarekin konparatuta):

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. Kurtosia = - 0,23

- Asimetriko negatiboa da, zertxobait; banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da. Fisherren asimetria-koefizientea -0,53 da.

2.6. Ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna. Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

Aurkezpena eta ortografia	Istorioaren koherentzia	Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna
<ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia 	<ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia • Paragrafoen erabilera. • Bilakaera tematikoa • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpausak elkarren artean lotuta daude. • Pertsonaiak eta haien ekintzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Perpausen sintaxia • Aditz-denborak zuzen erabiltzea • Aditz komunztadura (subjektua-predikatua) • Mendeko perpausak (baleude eta nola dauden eginak) • Adjektibo eta adizlagunen erabilera. • Hizkuntza idatziaren, eta lagunarteko eta ahozko • hizkuntzaren arteko aldea

Gaitasun mailak idazketan: esanahia

Aurreko irizpideak kontuan harturik, idazketa maila hauek zehaztu dira.

1. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, maila honetako testuen aurkezpena ez da ona. Letra irregularra izan ohi da eta, batzuetan, baita irakurtezina ere. Ortografia akatsak asko dira: muturreko kasuetan hitzak elkarturik ageri dira edo, aitzitik, hitza bera bereizi egiten dute.

Istorioaren koherentzia

Benetako egitura tematiko koherenterik gabeko testuak dira: gauzak kontaktzen dituzte alde zuzen gabe, benetako barne-koherentziarik gabe. Ez dago progresio tematikorik eta zaila da narrazioaren aktoreak eta pertsonaiak eta haren ekintzak zein diren bereiztea.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna.

Ikuspuntu gramatikaletik, baiezta daiteke maila honetako ikasleek ez dituztela oinarritzko ezaugarriak menderatzen eta ez dituztela idaztean erabiltzen. Perpausak ez daude ongi

eratuak, ezta puntuen bidez bereiziak ere. Komuntadura akatsak egiten dituzte. Ez da ahozko kodearen eta formalagoa behar duen kode idatziaren artean bereizten; idazten dute mintzatutakoaren hitzez hitzeko transkripzioa balitz bezala. Testuetan gramatika akatsak gari dira.

2. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena onargarria da. Letra irakurtzeko modukoa izan ohi da. Bost ortografia akatsetatik gora egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzitik gora, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: Gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko planarekin, eta barne-koherentziari dagozkion akats batzuk egiten dituzte. Maila honetako ikasleek testua ez dute paragrafoetan antolatzen; idazten eta gauzak kontatzen hasten dira eta, bat-batean, zakarki, bukatu egiten dute. Beste batzuetan, berriz, ez dituzte pertsonaiak aurkezten eta pertsonaiak nahasi egiten dituzte. Testuaren barne-kohesioan akatsak egin ohi dituzte: ez dago lokailurik edo gaizki erabilia daude; batzuetan, puntuazioko akatsek testu nahasia sortzen dute.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, esan daiteke maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutzak dituztela, nahiz eta arazoak izan idatzi behar dutenean; ez dituzte testuak gainbegiraten. Perpausen egitura oso oinarrizkoa da, sintaxiaren ikuspuntutik begiraturik ongi eratutakoak badira ere. Ia ez dago mendeko perpausik eta gehiegitan jartzen dituzte emendiozko perpausak batzuk besteen segidan. Komuntaduran hutsegiteren bat izan dezakete, baina puntuala izan ohi da eta gehienetan idazkia ez gainbegiratzeak sortutakoa eta ez horrenbeste gaitasun gabeziaren ondorio. Ahozko kodearen eta kode idatziaren artean bereizketa egiten da testuan, kutsadura ugari ageri bada ere.

3. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena ona da. Letra irakurterraza, argia eta erregularra izan ohi da. Bost ortografia akats baino gutxiago egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzi baino gutxiago, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetako narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko plan batekin, eta testuak irakurrita antzematen da haien barne-koherentzia onargarria dela. Testuak baditu aurkezpen laburra, bilbea edo historiaren garapena eta bukaera, nahiz eta batzuetan zakar samarra izaten den. Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere.

Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barnekohesioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutza gramatikalak menderatzen dituzte eta idaztean erabiltzen dituzte. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan ageri diren urratuak eta zuzenketak lan horren ondorio dira). Perpausen egitura landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik.

3+ maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena oso ona da. Letra irakurterraza, argia eta oso erregularra izan ohi da. Haien ekoizpen idatzietan oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen dituzte. Testuak garbi samarrak dira eta urratuak edo zuzenketak soilik testua gainbegiratzean egindakoak dira.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan, narrazio testuek adin hauetarako egitura tematiko oso zehaztua izan ohi dute: badituzte aurkezpena, bilbea edo historia oso koherentearen garapena eta ongi narratutako bukaera, amaieran. Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere. Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola

edo halako koherentzia. Perpausak barne-koehsioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak, ongi antolatuak eta zentzu guztie irakurgarriak dira. 3. mailari gehitzen zaio aberastasuna eta barietatea, dela hiztegian, dela hizkuntza baliabideen erabileran. Eta horrek testua arinagoa eta naturalagoa egiten du.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, eskuarki baiezta daiteke maila honetako ikasleek menderatzen dituztela zikloko oinarrizko ezagutzak eta idaztean erabiltzen dituztela. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan izan daitezkeen urratuak eta zuzenketak lan horren ondorio dira). Perpausen egitura aurreko mailan baino landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia. Maila hau aurretik bereizten da barne-koehsioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dauden 20-21. eta 22. itemen puntuazio zuzenen batura erdieste, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Idazmena gaztelaniaz Puntuazio-tarteak
1. maila	0-4
2. maila	5-7
3. maila	8-10
3+ maila	11-12

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoak jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	12,2
2. maila	28,9
3. maila	38,5
3+ maila	20,4

Alderdi azpimarragarriak

- 3. maila edo 3+ maila erdiesten duten ikasleen %58,9 gai dira haien adinari egokitutako testu idatzi bat egiteko.
- Ikasleen %41,1 ez dira gai testu bat ongi idazteko.
- o Ikasleen %12 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.

3. Hizkuntza gaitasuna euskaraz

3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak bi zati izan ditu: irakurketa eta idazketa.

Irakurketak bi testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurritakoa ulertzeko ondoko galderak atera dira: “*Ametsak*” testutik 14 item prestatu ziren eta “*Lehoinabarra*” izeneko bigarren testutik, 11 item. Osotara, 25 item izan ziren. Horietatik 24ek puntu bateko balioa izan zuten eta 1k, 2 puntukoa. Kasu hauetan, puntu bateko puntuazio partzialak onartu dira.

Itemak zailtasun desberdinekoak izan dira: oso item errazak baziren (ikasleen %88,4k zuzen erantzundakoak) eta bata oso zailak ere (ikasleen %39,96k zuzen erantzundakoak).

25 itemei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

Idazlana egiteko ikasleak aukera libre zuten, eta Indiarra edo beste norabaitera bidaia bat imajinatu behar zuten.

3.6 puntuan idazketaren emaitzak ageri dira, modu bereizian emanak.

Hizkuntza gaitasuneko puntuazio orokorra irakurmenaren eta idazlanaren puntuazioen batuketa eginez lortu da, 0,684 eta 0,316 kopuruekin hurrenez hurren ponderatuz.

Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluatutako prozesua.

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

Item zk.	Irekia/Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun-indizea: ongi erantzundakoen %a	Ebaluatutako prozesua
1	Itxia	1	84,6	Informazioa bilatzea
2	Itxia	1	76,1	Interpretatzea
3	Itxia	1	76,4	Informazioa bilatzea
4	Itxia	1	73,1	Informazioa bilatzea
5	Itxia	1	70,9	Informazioa bilatzea
6	Itxia	1	68,9	Edukiaren gaineko hausnarketa
7	Irekia	1	69,9	Interpretatzea
8	Itxia	1	58,4	Interpretatzea

9	Itxia	1	62,0	Formaren gaineko hausnarketa
10	Itxia	1	85,6	Ulermen globala
11	Irekia	1	57,6	Ulermen globala
12	Itxia	1	75,2	Ulermen globala
13	Itxia	1	39,9	Ulermen globala
14	Irekia	1	68,4	Interpretatzea
15	Itxia	1	70,7	Interpretatzea
16	Itxia	1	84,6	Informazioa bilatzea
17	Itxia	1	59,1	Informazioa bilatzea
18	Itxia	1	75,9	Interpretatzea
19	Itxia	1	72,3	Interpretatzea
20	Itxia	1	88,4	Formaren gaineko hausnarketa
21	Irekia	1	66,6	Edukiaren gaineko hausnarketa
22	Itxia	1	86,8	Ulermen globala
23	Irekia	1	75,1	Formaren gaineko hausnarketa
24	Itxia	1	87,0	Interpretatzea
25	Itxia	2	65,3	Informazioa bilatzea
26	Irekia	4	65,0	Aurkezpena eta ortografia
27	Irekia	4	64,0	Koherentzia
28	Irekia	4	59,9	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna

26, 27. eta 28. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

3.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Hizkuntza gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleak gai dira narrazio edo azalpen testu bateko informazio literala ulertzeko. Horretaz gainera, ulermen orokorrik eskatzen ez duten interpretazio-ataza oso errazak zuzen erantzuten dituzte. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, globalki ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko. <i>Oro har, ikasle horien ekoizpen idatzien aurkezpena ez da ona, ez dute zinez barne koherentziarik eta komunztadura akatsak egiten dituzte.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleek 1. mailako galderak zuzen erantzuten dituzte. Horretaz gainera, informazioa bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoera oso ongi ulertzea eskatzen dutenean. Interpretazioko eta hausnarketako ataza errazak ebazten hasten dira. Hori hala izanik ere, zailtasunak dituzte narrazio edo azalpen testuak globalki ulertzeko eta interpretatzeko testuak zailxeak badira eta baloratu beharrekoak badira. <i>Haien ekoizpen idatzietan bost ortografia akats baino gehiago daude. Testuaren barnekoehesioan akatsak izan ohi dira.: Perpausen egitura oso oinarrizkoa da.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Horretaz gainera, testua orokorki ulertzen dute. Interpretazioaren eta edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez maila onargarria dute. Gai da testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko. <i>Haien ekoizpen idatzietan bost ortografia akats baino gutxiago daude. Perpausak batzuk besteekin ongi kateaturik daude. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia Maila honetan nahiko zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleek, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte. <i>Haien ekoizpen idatziak argiak, ongi antolatutakoak eta arlo guztietan irakurtzeko modukoak dira. Maila hau aurrekotik bereizten da barnekoehesio baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia Maila honetan zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz</i></p>

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna euskaraz Puntuazio-tarteak
1. maila	0-17
2. maila	18-22
3. maila	23-33
3+ maila	34-38

3.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-kaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez:

- 20. itemak formaren gaineko hausnarketa eskatzen du (testuinguru zehatz batean) eta oso erraza izan da ikasleen %88,4rentzat
- 3. itemak informazioa aurkitzea eskatzen zuen, eta ez da aurrekoa bezain erraza izan
- 13. itemak testuaren ulermen orokorra eskatzen zuen, eta ikasleen %39,9k bakarrik egin du zuzen.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztien arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin.

Diskriminazio-indizeak positiboa izan behar du eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

- Erantzun irekiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailai (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen baute.

Item zk.	Mailaketa	Diskriminazioindizea
1	1. maila	0,339
2	2. maila	0,365
3	2. maila	0,309
4	2. maila	0,303
5	2. maila	0,366
6	2. maila	0,331
7	2. maila	0,515
8	3. maila	0,276
9	3. maila	0,405
10	1. maila	0,134
11	3. maila	0,428
12	2. maila	0,429
13	3+ maila	0,126
14	2. maila	0,327
15	2. maila	0,248
16	2. maila	0,370
17	3. maila	0,294
18	2. maila	0,309
19	2. maila	0,457
20	1. maila	0,359
21	3. maila	0,429
22	1. maila	0,297
23	2. maila	0,380
24	1. maila	0,303
25	2. maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa	0,486
26	1. maila: puntu bateko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna	0,600

	3+ maila: 4 puntuko erantzuna	
27	1. maila: puntu bateko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna	0,649
28	1. maila: puntu bateko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna	0,684

26, 27. eta 28. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

10. Itema. Zein izan daiteke testu honen beste izenburu bat?

- A. Ramaren amets zoragarria
- B. Ramaren aita eta ama
- C. Arrano beltzaren ibilaldia
- D. Agure bizartzuriaren aholkuak

Erantzuna	A
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Ulermen globala
Gaitasun maila	1. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 1. mailan	66,3
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	85,6
Diskriminazio- indizea	0,215

18. Itema, Zer esan nahi du lehoinabarrek “bakarreko ehiza” egiten dutela?

- A. Ehizan bakarrik ibiltzen direla.
- B. Ehizan egunez bakarrik aritzen direla.
- C. Ehizan hegaztiak bakarrik harrapatzen dituztela.
- D. Ehizan saiakera bakar bat egiten dutela.

Erantzuna	A
------------------	---

Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	2. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 2. mailan	65,4
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	75,9
Diskriminazio- indizea	0,400

8. Itema, Ramak arranoari lepoko lumetatik heldu zion...

- A. seguruago sentitu eta ez erortzeko.
- B. arranoari nondik joan behar zuen esateko.
- C. arranoak berak eskatu ziolako.
- D. kobazuloko maitagarriek esan ziotelako.

Erantzuna	A
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	3. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3. mailan	63,5
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	58,4
Diskriminazio- indizea	0,335

13. Itema, Zure ustez, zein da testuaren egilearen helburua?

- A. Sri Lanka irla non dagoen ezagutaraztea.
- B. Istorio honen bitartez irakurtzeaz gozatzea.
- C. Ametsei eta errealitateari buruzko iritzia ematea.
- D. Arranoaren ezaugarri fisikoei buruzko informazioa ematea.

Erantzuna	B
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Ulermen globala
Gaitasun maila	Nivel 3+
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3+ mailan	61
Zuzen erantzundakoen	39,9

ehunekoa, osotara	
Diskriminazio- indizea	0,409

3.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (hizkuntza gaitasuna euskaraz)

Kopuru osoa	1.790
Gaitasun proben kopurua	1.782
Neska kopurua	906
Mutil kopurua	876
Gutxieneko puntuazioa	3
Gehienezko puntuazioa	38
Batez besteko puntuazioa	26,97
Desbideratze tipikoa	6,46
Nesken batez bestekoa	26,97
Mutilen batez bestekoa	25,40
1. maila (%)	11,34
2. maila (%)	15,96
3. maila (%)	60,94
3+ maila (%)	11,78

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 38 puntu dituztenak, eta 3 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa 6,46koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %24,7; handikoa da eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 8

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoa, mailaka
1. maila	11,34
2. maila	15,96
3. maila	60,94
3+ maila	11,78

Irudikatze grafikoa




Alderdi azpimarragarriak

- 10 ikasletatik ia 7k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko.
- Ikasleen %11,78ek neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.

Banaketa, sexuaren arabera


Neskek mutilek baino 1,57 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, ($<1/4$ DT)

	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	26,97
Mutilen batez bestekoa	25,40

Irudikatze grafikoa

3.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da (kurba den banaketa normalarekin konparatuta):

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. Kurtosia = - 0,21

- Asimetriko negatiboa da, zertxobait; banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da. Fisherren asimetria-koefizientea -0,56 da.

3.6. Ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna. Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

Aurkezpena eta ortografia	Istorioaren koherentzia	Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna
<ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia 	<ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia • Paragrafoen erabilera. • Bilakaera tematikoa • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpausak elkarren artean lotuta daude. • Pertsonaiak eta haien ekintzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Perpausen sintaxia • Aditz-denborak zuzen erabiltzea • Aditz komunztadura (subjektua-predikatua) • Mendeko perpausak (baleude eta nola dauden eginak) • Adjektibo eta adizlagunen erabilera. • Hizkuntza idatziaren, eta lagunarteko eta ahozko • hizkuntzaren arteko aldea

Gaitasun mailak idazketan: esanahia

Aurreko irizpideak kontuan harturik, idazketa maila hauek zehaztu dira.

1. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, maila honetako testuen aurkezpena ez da ona. Letra irregularra izan ohi da eta, batzuetan, baita irakurtezina ere. Ortografia akatsak asko dira: muturreko kasuetan hitzak elkarturik ageri dira edo, aitzitik, hitza bera bereizi egiten dute.

Istorioaren koherentzia

Benetako egitura tematiko koherenterik gabeko testuak dira: gauzak kontaktzen dituzte alde zuzeneko planik gabe, benetako barne-koherentziarik gabe. Ez dago progresio tematikorik eta zaila da narrazioaren aktoreak eta pertsonaiak eta haren ekintzak zein diren bereiztea.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna.

Ikuspuntu gramatikaetik, baiezta daiteke maila honetako ikasleek ez dituztela oinarrizko ezagutzak menderatzen eta ez dituztela idaztean erabiltzen. Perpausak ez daude ongi

eratuak, ezta puntuen bidez bereiziak ere. Komunztadura akatsak egiten dituzte. Ez da ahozko kodearen eta formalagoa behar duen kode idatziaren artean bereizten; idazten dute mintzatutakoaren hitzez hitzeko transkripzioa balitz bezala. Testuetan gramatika akatsak gari dira.

2. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena onargarria da. Letra irakurtzeko modukoa izan ohi da. Bost ortografia akatsetatik gora egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzitik gora, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: Gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko planarekin, eta barne-koherentziari dagozkion akats batzuk egiten dituzte. Maila honetako ikasleek testua ez dute paragrafoetan antolatzen; idazten eta gauzak kontatzen hasten dira eta, bat-batean, zakarki, bukatu egiten dute. Beste batzuetan, berriz, ez dituzte pertsonaiak aurkezten eta pertsonaiak nahasi egiten dituzte. Testuaren barne-kohesioan akatsak egin ohi dituzte: ez dago lokailurik edo gaizki erabilia daude; batzuetan, puntuazioko akatsek testu nahasia sortzen dute.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, esan daiteke maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutzak dituztela, nahiz eta arazoak izan idatzi behar dutenean; ez dituzte testuak gainbegiratzen. Perpausen egitura oso oinarrizkoa da, sintaxiaren ikuspuntutik begiraturik ongi eratutakoak badira ere. Ia ez dago mendeko perpausik eta gehiegitan jartzen dituzte emendiozko perpausak batzuk besteen segidan. Komunztaduran hutsegiteren bat izan dezakete, baina puntuala izan ohi da eta gehienetan idazkia ez gainbegiratzeak sortutakoa eta ez horrenbeste gaitasun gabeziaren ondorio. Ahozko kodearen eta kode idatziaren artean bereizketa egiten da testuan, kutsadura ugari ageri bada ere.

3. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena ona da. Letra irakurterraza, argia eta erregularra izan ohi da. Bost ortografia akats baino gutxiago egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzi baino gutxiago, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetako narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko plan batekin, eta testuak irakurrita antzematen da haien barne-koherentzia onargarria dela. Testuak baditu aurkezpen laburra, bilbea edo historiaren garapena eta bukaera, nahiz eta batzuetan zakar samarra izaten den. Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere.

Pertsoniak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barnekohesioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutza gramatikalak menderatzen dituzte eta idaztean erabiltzen dituzte. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan ageri diren urratuak eta zuzenketak lan horren ondorio dira). Perpausen egitura landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Maila honetan nahiko zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.

3+ maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena oso ona da. Letra irakurterraza, argia eta oso erregularra izan ohi da. Haien ekoizpen idatzietan oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen dituzte. Testuak garbi samarrak dira eta urratuak edo zuzenketak soilik testua gainbegiratzean egindakoak dira.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan, narrazio testuek adin hauetarako egitura tematiko oso zehaztua izan ohi dute: badituzte aurkezpena, bilbea edo historia oso koherentearen garapena eta ongi narratutako bukaera, amaieran. Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma

aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere. Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barne-kohesioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak, ongi antolatuak eta zentzu guztie irakurgarriak dira. 3. mailari gehitzen zaio aberastasuna eta barietatea, dela hiztegian, dela hizkuntza baliabideen erabileran. Eta horrek testua arinagoa eta naturalagoa egiten du.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaletik, eskuarki baieztatu daitezke maila honetako ikasleek menderatzen dituztela zikloko oinarrizko ezagutzak eta idaztean erabiltzen dituztela. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan izan daitezkeen urratuak eta zuzenketak lan horren ondorio dira).

Perpausen egitura aurreko mailan baino landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eraturik daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia. Maila hau aurretik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia. Maila honetan zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dauden 20-21. eta 22. itemen puntuazio zuzenen batura erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Idazmena gaztelaniaz Puntuazio-tarteak
1. maila	0-4
2. maila	5-7
3. maila	8-10
3+ maila	11-12

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	11,7
2. maila	34,6
3. maila	43,4
3+ maila	10,3

Alderdi azpimarragarriak

- 3. maila edo 3+ maila erdiesten duten ikasleen %54 gai dira haien adinari egokitutako testu idatzi bat egiteko.
- Ikasleen %46 ez dira gai testu bat ongi idazteko.
- Ikasleen %10,3 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.

4. Matematika gaitasuna

4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak 3 estimulu izan ditu eta horietako bakoitzeko 6-11 item jarri dira. 27 itemetatik 20k puntu 1eko balioa izan dute eta 5ek, 2 puntukoa. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da. 9. itema baliogabetu zen bi erantzun zuzen zituelako.

27 itemei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematikako prozesuekin daude loturik. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua

Itemen ordena taulan eta probako koadernotxoan, bera da.

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun-indizea: ongi Erantzundakoen %a	Ebaluatutako Prozesua *
1	Itxia	1	73,4	Ebazpen matematikoa
2	Itxia	1	42,7	Ebazpen matematikoa
3	Itxia	1	75,9	Ebazpen matematikoa
4	Itxia	1	35,4	Ebazpen matematikoa
5	Itxia	1	74,5	Ebazpen matematikoa
6	Irekia	1	91,5	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
7	Itxia	1	68,8	Ebazpen matematikoa
8	Irekia	1	72,1	Egoera ulertzea
9	Itxia	1	77,5	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
10	Itxia	1	14,8	Ebazpen matematikoa
11	Irekia	1	83,1	Ebazpen matematikoa
12	Irekia	1	59,0	Ebazpen matematikoa
13	Itxia	1	80,6	Ebazpen matematikoa
14	Irekia	2	53,4	Egoera ulertzea
15	Itxia	1	62,3	Ebazpen matematikoa
16	Irekia	2	77,9	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
17	Irekia	1	75,0	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
18	Irekia	2	65,0	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
19	Irekia	2	43,5	Informazioa termino matematikoetara itzultzea

20	Irekoa	1	70,8	Informazioa termino matematikoetara itzultzea
21	Irekoa	2	69,0	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
22	Irekoa	1	68,4	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
23	Itxia	1	71,2	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa
24	Itxia	1	71,7	Ebazpen matematikoa
25	Itxia	1	76,7	Ebazpen matematikoa
26	Irekoa	2	44,6	Ebazpen matematikoa
27	Irekoa	2	54,1	Testuingurura egokitutako arrazoitze matematikoa

- Itemari argien lotutako prozesua hautatu da eta ez da beste prozesu batzuekiko lotura bazterten.

4.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Hizkuntza gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin

1. MAILA

Maila honetako ikasleek matematikako gaitasun-maila apala dute. Oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen. Maila honetako galderarik arruntena eta estatistikoki adierazgarriena honako hau da: irekiduraren araberako angeluak bereiztea. Kasu hauetan, probako galderaren formatua eta ikasliburuetan izaten diren ariketena oso antzekoak dira.

2. MAILA

Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarrizko maila dira. Adibidez, grafiko bat egitea euskarriekin eta exenplifikazioekin, oso oinarrizko denborakalkuluak egitea, oso taula xumeak interpretatzea eta haietatik informazioa ateratzea, planoan simetria ulertzea. Lan horietan guztietan ez dago kalkulu matematikorik (edo kalkuluak egiten badira lehen zikloari dagokion konplexutasun mailakoak dira). Maila horretan bi urrats egin beharreko problemarik ere ez dago, ezta 4. mailako ikasle batek ustez egiten jakin behar dituen arrazoitze matematikoak ere.

3. MAILA

Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetak lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealeko egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Egoera batez jabetzen dira eta hura ulertzen dute, egoera horrek, zenbakizko informazio askorik izan ez arren, maila honetako ikasle batek ustez jakin behar duen arrazoitze logikomatematikoa eskatzen duenean. Era berean, bi urrats egin eta egoera matematiko bat planteatu beharreko problemak ebazten dituzte. Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; badakite denborakalkulu errealak egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin.

3. MAILA +

3. maila eta maila hau ez dira desberdinak. Maila honetan ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek 2. eta 3. mailan sartutako atazak menderatzen dituzte. Nolanahi ere, badira azpimarratu beharreko berezitasun batzuk, hala nola, arrazoitze matematikoa aldeztu aurretiko baldintzen arabera egokitzen dute

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdieste, hurrengo taulan adierazi den bezala:

:

	Matematika gaitasuna Puntuazio-tarteak
1. maila	0 - 12
2. maila	13 - 18
3. maila	19 - 29
3+ maila	30 - 34

4.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-kaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez:

- 6. itema orokorrean erraza izan da. Ikasleak gai baitira datuak taula batetik grafika batera pasatzeko.
- 16. itema ez da izan aurrekoa bezain erraza, eta batuketa batean hutsuneak betezea eskatzen zuen, hainbat kalkulu eginez.
- 14. itemak kalkulu prozesu bat eskatzen du, zatikiekin.
- 4. galderak ebazpen matematikoa eskatzen du, bi pausutan, eta gaitasun handieneko ikasleek bakarrik egiten dute ongi.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztien arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin.

Diskriminazio-indizeak positiboa izan behar du eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

- Erantzun irekiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.


Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailai (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen baute.

Item zk.	Mailaketa	Diskriminazioindizea
1	2.maila	0,360
2	3+ maila	0,119
3	2.maila	0,384
4	3+ maila	0,336
5	2.maila	0,413
6	1.maila	0,207
7	2.maila	0,254
8	2.maila	0,311
9	2.maila	0,438
10	3+ maila	0,225
11	1.maila	0,250
12	2.maila	0,231
13	1.maila	0,304
14	2.maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa	0,437
15	3. maila	0,449
16	2.maila: erantzun partziala 3.maila: erantzun osoa	0,395
17	2.maila	0,432
18	2.maila: erantzun partziala 3.maila: erantzun osoa	0,479
19	3.maila: erantzun partziala 3+ maila: erantzun osoa	0,456

20	2.maila	0,415
21	2.maila: erantzun partziala 3.maila: erantzun osoa	0,464
22	2.maila	0,302
23	2.maila	0,379
24	2.maila	0,333
25	2.maila	0,418
26	3.maila: erantzun partziala 3+ maila: erantzun osoa	0,523
27	3.maila: erantzun partziala eta osoa	0,532


Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

11. Itema. Iñigo, Isi, Jon, Eli, Nerea, Leire, eta Pablo eskolako patioan olasten ari dira. Nor hartzen du Isik bere eskuineko eskuarekin?



Erantzuna	Íñigori/Iñigo
Puntuazioa	Puntu bat
Mota	Irekia
Irakurketa prozesua	Egoera ulertzea
Gaitasun maila	1.maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 1. mailan	0,590
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	83,1
Diskriminazio- indizea	0,250

3. Itema. Saskibaloia kantzaren neurriak hauek dira: 28 metro luze eta 15 metro zabal. Zenbat neurtzen du kantzaren perimetroak?



- A. 30 m
- B. 43 m
- C. 56 m
- D. 86 m

Erantzuna	D
Puntuazioa	Puntu bat
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Ebazpen matematikoa
Gaitasun maila	2.maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 2. mailan	61,8
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	75,9
Diskriminazio- indizea	0,384

15. Itema. Begira ondoko errezeta:

Muxika eta laranja irabiakia

Osagaiak (2 pertsonentzako):

- 250 ml muxika zuku
- 100 ml laranja zuku
- 150 ml muxika yogurt



Aitanaren amak irabiakia prestatu du aurreko errezetari jarraituz, 4 pertsonentzako. Zenbat mililitro izanen ditu irabiakiak?

- A. 600 ml
- B. 900 ml
- C. 1.200 ml
- D. 1.500 ml

Erantzuna	C
------------------	---

Puntuazioa	Puntu bat
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Ebazpen matematikoa
Gaitasun maila	3.maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3. mailan	73,1
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	62,3
Diskriminazio- indizea	0,449

2. Itema. Irudian jolastokiko saskibaloari saskia ageri da. Zure ustez, zenbat neurtzen du saskiaren diametroak?

- A. Metro 1
- B. 25 zentimetro
- C. 45 zentimetro
- D. 60 milimetro



Erantzuna	C
Puntuazioa	Puntu bat
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Egoera ulertzea
Gaitasun maila	3+ maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3+ mailan	61,6
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	42,7
Diskriminazio- indizea	0,119

4.4. Emaidza orokorrak

Estatistikoen taula (Matematika gaitasuna)

Kopuru osoa	6.557
Gaitasun proben kopurua	6.491
Neska kopurua	3.230
Mutil kopurua	3.261
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	34

Batez besteko puntuazioa	21,60
Desbideratze tipikoa	6,82
Nesken batez bestekoa	21,23
Mutilen batez bestekoa	21,97
1. maila (%)	11,68
2. maila (%)	19,26
3. maila (%)	58,02
3+ maila (%)	11,05

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 34 izan da eta txikiena puntu bakarra.
- Desbideratze tipikoa 6,82koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %31,6; handixkoa da eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 66

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoak jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	11,68
2. maila	19,26
3. maila	58,02
3+ maila	11,05

Irudikatze grafikoa



Alderdi azpimarragarriak


- 10 ikasletatik ia 7k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko.
- Ikasleen %11,7 ek neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.

Banaketa, sexuaren arabera

Mutilek neskek baino 0,74 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke. (<1/4 DT)


	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	21,23
Mutilen batez bestekoa	21,97

Irudikatze grafikoa



4.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da (kurba den banaketa normalarekin konparatuta):

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. Kurtosia = - 0,45

- Asimetriko negatiboa da, zertxobait; banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da. Fisherren asimetria-koefizientea -0,51 da.

5. Ingeles gaitasuna

5.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak hiru trebetasun zituen: "Listening"-a edo entzumenaren ulermena 9 galderarekin; "Reading"-a edo idazmenaren ulermena 16 galderarekin; eta "Writing"-a edo idazlana: landa eremuko paisai baten argazkia deskribatzearekin loturik.

Hiru hizkuntza trebetasun hauek ez dira probako puntuazio osoan berdin puntuatzen; hona taula honetan puntuazio horiek:

Trebetasuna	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik (%)
Listening	30%
Reading	50%
Writing	20%

28 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesu desberdinekin lotuta daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluatutako prozesua.

Item zk.	Irekia/Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun-indizea: ongi erantzundakoen %a	Ebaluatutako prozesua
1	Itxia	1,233	94,9	Informazioa bilatzea
2	Itxia	1,233	98,3	Informazioa bilatzea
3	Itxia	1,233	61,3	Informazioa bilatzea
4	Itxia	1,233	55,3	Informazioa bilatzea
5	Itxia	1,233	33,9	Informazioa bilatzea
6	Itxia	1,233	93,1	Informazioa bilatzea
7	Itxia	1,233	48,5	Informazioa bilatzea
8	Itxia	1,233	78,6	Informazioa bilatzea
9	Itxia	1,233	50,7	Interpretatzea
10	Itxia	1,156	90,2	Informazioa bilatzea
11	Itxia	1,156	73,0	Informazioa bilatzea
12	Itxia	1,156	74,9	Informazioa bilatzea
13	Itxia	1,156	41,8	Interpretatzea
14	Itxia	1,156	54,6	Interpretatzea

15	Itxia	1,156	73,5	Informazioa bilatzea
16	Itxia	1,156	45,8	Informazioa bilatzea
17	Itxia	1,156	42,5	Interpretación
18	Itxia	1,156	78,3	Informazioa bilatzea
19	Itxia	1,156	64,5	Informazioa bilatzea
20	Itxia	1,156	62,8	Informazioa bilatzea
21	Itxia	1,156	47,7	Informazioa bilatzea
22	Itxia	1,156	55,0	Informazioa bilatzea
23	Itxia	1,156	41,6	Interpretatzea
24	Itxia	1,156	70,3	Informazioa bilatzea
25	Itxia	1,156	71,2	Informazioa bilatzea
26	Irekia	2,468	63,7	Aurkezpena eta ortografia
27	Irekia	2,468	59,6	Koherentzia
28	Irekia	2,468	55,0	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna

26, 27. eta 28. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

5.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

2. MAILA

Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala, agerikoa eta aurkitzeko modukoa ulertzeko. Hala ere, interpretatze-maila jakina duten galderei erantzuteko zailtasunak dituzte. Ez dituzte ulertzen 2. zikloan landutako hitz oso oinarritzkoak. Pertsonaia baten deskribapen oso labur eta oinarritzkoa idazteko soilik gai da, baina gramatikako hutsegite asko eginda.

2. MAILA

Maila honetako ikasleek egoki erantzuten dituzte 1. mailako galderak, hau da, informazio literala ulertzea eskatzen dutenak. Baina, gainera, testuaren ulermen-maila handiagoko galderak (informazioa bilatzekoak) ebatzen dituzte. Maila honetako hiztegia 1. mailakoa baino zabalagoa da. Hori hala bada ere, testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan zailtasunak dituzte. Ez dira inferentzia konplexuagoak egiteko gai. Pertsonaia bat deskribatzeko zailtasunak dituzte.

3. MAILA

Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera testua globalki ulertzen dute eta gai dira hitzetatik haragoko interpretazioa egiteko. Horretaz gainera, testu etundun batean edukiaren banaketa zein den ulertzen dute eta badakite berariazko informazio-mota bat non bilatu. Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen dute eta horrek aukera ematen die egoeren eta ekintzen ulermeningurua handitzeko. Gai dira pertsonaia baten oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko, testuaren ulermena eragozten ez duen akatsen bat egiten badute ere.

3. MAILA +

Maila honetako ikasleak 3. mailari dagozkion atazak zuzen egiteko gai dira eta, horretaz gainera, ataza konplexuagoak ebatzen dituzte, hiztegiari edo testuaren egitura sintaktikoari dagozkion interpretazio-maila dela-eta konplexuagoak direnak. Gai dira 4. mailari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez pertsonaia baten oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Ingeles gaitasuna Puntuazio-tarteak
1. maila	0 - 14,99
2. maila	15 – 18,99
3. maila	19 - 31,99
3+ maila	32 - 37

5.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-kaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 10. itema oso erraza izan da, 18. itema ez hainbeste, 22. zailtasun mailaertainekoa eta 23. galdera gaitasun handieneko ikasleek bakarrik egiten dute ongi.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztien arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin.

Diskriminazio-indizeak positiboa izan behar du eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

- Erantzun irekiko itema: Mi mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailai (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute, "Writing" idazmenean gertatu den bezala.

	Item zk.	Mailaketa	Diskriminazioindizea
Listening (30%)	1	1.maila	0,252
	2	1.maila	0,168
	3	3. maila	0,391
	4	3. maila	0,323

	5	3+ maila	0,319
	6	1.maila	0,283
	7	3. maila	0,414
	8	2.maila	0,424
	9	3. maila	0,248
Reading (50%)	10	1.maila	0,320
	11	2.maila	0,389
	12	2.maila	0,347
	13	3+ maila	0,348
	14	3. maila	0,491
	15	2.maila	0,404
	16	3+ maila	0,310
	17	3+ maila	0,357
	18	2.maila	0,391
	19	3. maila	0,247
	20	3. maila	0,424
	21	3+ maila	0,283
	22	3. maila	0,250
	23	3+ maila	0,267
	24	3. maila	0,439
25	2.maila	0,252	
Writing (20%)	26	1. maila: 0,6 puntu 2. maila: 1,2 puntu 3. maila: 1,8 puntu 3+ maila: 2,5 puntu	0,634
	27	1. maila: 0,6 puntu 2. maila: 1,2 puntu 3. maila: 1,8 puntu 3+ maila: 2,5 puntu	0,698
	28	1. maila: 0,6 puntu 2. maila: 1,2 puntu 3. maila: 1,8 puntu 3+ maila: 2,5 puntu	0,691

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

10. Itema. Where did Sandra live?

- A. In a little town.
- B. In a little village.
- C. In a small flat.
- D. In a big house.

Erantzuna	B
Puntuazioa	1,156
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	1. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 1. mailan	61,1
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	90,2
Diskriminazio- indizea	0,320

12. Itema. How did Sandra want her garden to look?

- A. Pink and yellow.
- B. Very green.
- C. She didn't mind at all.
- D. In many different colours.

Erantzuna	D
Puntuazioa	1,156
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 2. mailan	58,5
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	74,9
Diskriminazio- indizea	0,347

20. Itema. Which plant needs very little water to live?

- A. The Venus flytrap.
- B. The sequoia.
- C. The cactus.
- D. The rafflesia.

Erantzuna	C
Puntuazioa	1,156
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea

Gaitasun maila	3. maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3. mailan	69,1
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	62,8
Diskriminazio- indizea	0,424

23. Itema. Which of these plants has the shortest life?

- A. The cactus.
- B. The rafflesia.
- C. The Venus flytrap.
- D. The sequoia.

Erantzuna	B
Puntuazioa	1,156
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretación
Gaitasun maila	3+ maila
Zuzen erantzundakoen ehunekoa 3+ mailan	78,8
Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara	41,6
Diskriminazio- indizea	0,318

5.4. Eraitza orokorrak

Estatistikoen taula (Ingeles gaitasuna)

Kopuru osoa	6.546 *
Gaitasun proben kopurua	6.490
Neska kopurua	3.227
Mutil kopurua	3.263
Gutxieneko puntuazioa	1,85
Gehienezko puntuazioa	37
Batez besteko puntuazioa	23,39
Desbideratze tipikoa	6,70
Nesken batez bestekoa	24,18
Mutilen batez bestekoa	22,61
1. maila (%)	11,33

2. maila (%)	15,56
3. maila (%)	61,05
Kopuru osoa	12,06

* Badira 3 ikastetxe frantsea ematen dutenak, ingelesaren tokian

Alderdi azpimarragarriak


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 37 puntu dituztenak, eta 1,85 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa 6,70koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %28,6; horrek esan nahi du banakako puntuazioak batez besteko puntuaziotik aldentzen direla eta eskalaren muturretan puntuazio asko dagoela.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 56.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	11,33
2. maila	15,56
3. maila	61,05
3+ maila	12,06

Irudikatze grafikoa



Alderdi azpimarragarriak:


- Ikasleen %73k 3 edo 3+ maila lortzen du, gai dira adinari dagozkion hizkuntza prozesuak betetzeko.
- Ikasleen laurdenak baina pixka bat gehiago ez da gai hizkuntza prozesuak egoki betetzeko.
- Ikasleen %11,3k neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako

Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 1,57 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, (<1/4 DT)


	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	24,18
Mutilen batez bestekoa	22,61

Irudikatze grafikoa



5.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da (kurba den banaketa normalarekin konparatuta):

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. Kurtosia = - 0,65

- Zertxobait asimetriko negatiboa da; banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da. Fisherren asimetria-koefizientea -0,07 da.

6. Informazio sozioekonomikoa eta kulturala

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK izeneko indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

6.1 ISEKa

Galdera-sortaren xede nagusia da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala egiteko informazioa biltzea. Indize honek kontuan hartzen ditu nazioarteko azterlanetan (PISA proiektua) eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretan erabilitako aldagai berak.

Indizea prestatzeko aldagaiak ondokoak dira:

1. Gurasoen ikasketa-maila (gurasoetako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan).
2. Gurasoek egiten duten lana (gurasoetako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan).
3. Etxean dituzten zenbait elementu (galdera-sortako 12. galdera). Ondoko lauak hartu dira:
 - ordenagailu eramangarria
 - mahai gaineko ordenagailua
 - ikasten lagunduko dizuten entziklopediak, kontsulta liburuak
 - Aldizkari bereziak (informatika, natura, literatura, etab.)
4. Etxean dituzten irakurketa liburuak.

Lau aldagai horiei pisu bera eman zaie eta ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera eta, hartara, 0 izanen da Nafarroaren batez bestekoa. Ikastetxe bakoitzari ISEKeko balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -2,07 eta +1,47-ren arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa moderatua dela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertu ondoren, hona hemen emaitza orokor hauek:

- Errendimenduaren eta ISEKaren arteko korrelazio-indizeak 0,56 - 0,38 - 0,49 eta 0,58 dira Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingeles gaitasunetarako, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du nola edo halako korrelazioan daudela ISEKa eta errendimendua; korrelazio hori handiaren eta arinaren artean dago, gaitasunaren arabera.
- ISEK-errendimendua izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimendua ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitzeko ikastetxeko batez besteko puntuazioa 46 - 43,5 - 44,7 y 57,6 puntu igotzen da, hurrenez hurren, gaitasun hauetan: gaztelania, uskara, matematika eta ingeles gaitasunak. Hurrengo tauletan datu hori gradiente modura ageri da.
- ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azaldua: $100 * R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da: 31,7%, 14,5%, 24,4% y 34,2% Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingeles gaitasunetan, hurrenez hurren.

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen dela, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- o Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza orokorrak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan konparatzeko aukera ematen du. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, lidergoa, etab.


Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke erregresio-grafikoetan ikusiz ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela (ekitatea da ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasuna). Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak artzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.

6.2 Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (1-109 ikasle), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak probak egin dituzten ikasleen kopuruaren arabera haztatuz. Haztapan horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak egiten ditu ondorio fidagarriak ateratzeko.

Jarraian, gaitasun bakoitzerako grafikoak prestatu dira. Haietako bakoitzean puntu bakoitza ikastetxe bat da eta batez besteko puntua (0-500) Nafarroako batez bestekoari dagokiona da


Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe



Gaztelania hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 270 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3,5 puntukoa da.

R² determinazio-koefizientea	0,317
Azaldutako bariantzaren (100* R²) ehunekoa (%)	%31,7
Gradiente	46 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,56


Hizkuntza gaitasuna euskaraz: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe



Euskara hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 260 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 2,5 puntukoa da.

R² determinazio-koefizientea	0,145
Azaldutako bariantzaren (100* R²) ehunekoa (%)	%14,5
Gradientea	43,5 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,38


Matematika hizkuntza gaitasuna: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe



Matematika hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 304 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3,5 puntukoa da.

R² determinazio-koefizientea	0,244
Azaldutako bariantzaren (100* R²) ehunekoa (%)	%24,4
Gradientea	44,7 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,49

Ingeles hizkuntza gaitasuna: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe




Ingeles hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 275 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3,8 puntukoa da.

R² determinazio-koefizientea	0,342
Azaldutako bariantzaren (100* R²) ehunekoa (%)	%34,2
Gradientea	57,6 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,58

6.3 ISEKaren banaketa

Grafikoan norbanakoaren edo ikaslearen ISEKaren banaketa ageri da.



Alderdi azpimarragarriak

- ISEKaren banaketa honelakoa izan da (kurba den banaketa normalarekin konparatuta):
- Zorrotza (gutxiago edo gehiago) edo zapalagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. Kurtosia $-0,54$ da.
 - Asimetriko negatiboa da; banaketaren ezkerreko muturra eskuinekoa baino luzeagoa da. Fisherren asimetria-koefizientea $-0,22$ da.
 - 204 ikaslek (%3,46) ISEK indizearen puntuaziorik altuena dute; horixe da maizenik ageri den balioa edo banaketaren moda.
 - Banakako ISEK aldagaia $-2,68$ eta $1,82$ artean dago.